

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bidaiaari sentimentala



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Jack Kerouac idazle estatubatuararen *On the road* nobela euskaratzen hasi zela, zera egin zuen Iñigo Roque itzultzaileak: “Jean Etxepareren *Beribilez*-era jo nuen, itsu-itsuan, hizkuntza tresnatzeko, jakinik harengan beti badela zer ikasia, eta ez nintzen tronpatu”. Orain kalean da *Errepidean*, eta aukera ezin hobia daukagu Etxepareren *Beribilez* ere irakurtzeko. Supermerkatu bagina, eskaintza: 2x1. Nobedade ez diren liburuak iruzkintzen ditugunez hemen, goazen estreinako edizioa 1931koa duena aletzera.

1987koak Mari Jose Kerejetaren hitzaurre gordin bat dakar, eta horrexegatik biziki interesantea –nahiz gauza batzuekin ez nagoen ados–: “Etxepare medikua ez da *Paul Morand* bat”, ondo, askoz gauza xumeagoa da, gure literatura literatura frantsesarekin konparatuta gauza xumeagoa den bezala. Erregresio moduko bat detektatzen dio, “hala nola katolikotasun kutsu ageria, bere gaztaroko artikuluren bateko jarreratik urrun xamar geratzen dena, edota bere abertzaletasun nabarmen eta tradizio zaharren gordetzaila”. Eta bukatzen du esaten “bere literatura apustuaren mailarik beheerenean” dagoela liburu hau.


Tira, ea, poliki. Akort, egia da bere garaian irakurri eta tarte honetan iruzkindu genuen *Buruxkak* haren aldean *Beribilez* honek galtzen duela puntxa, baina, positibo beti, kontu jakingarriak ere aurkituko dizkiogu. Egun bakarrean, autoz Kanbo-Kanbo ibili bitartean, 357 kilometro guztira, agertuko zaigu progresoaren aldeko,

Beribilez

JEAN ETXEPARE

Euskal Editoreen Elkarte
1987

*Jean Etxepare Bidegorri idazlea
(Mar Chiquita, Argentina, 1877–
Kanbo, Lapurdi, 1935) izengoitiz
Medikua deitua.*



basoen geroarekiko kezkatu, lan komunalaren oroitarazle, Madrilgo turismoaren ohargarri –eta hori Hondarribitik ez zela pasa–. Egia da besteren gainetik jasotzen direla paisaien deskribapenak, esajerazioraino: “Hemengoaren aldean, ikusi duten gutarik biek hitsa dela diote Provence eskualdeko zeru-gaina”. Eta zerk ematen dio paisaiari, bidaiaari bizia? Giza-jendeak, zalantzarik gabe, gizon-emakumeek. Horretatik eskas du liburuak.

Kerejetak Laurence Sterne aipatzen du hitzaurrean, haren *A Sentimental Journey through France and Italy* liburua. Eta dio bidaiaari-erreduen txantxetako sailkapena zirriborratu zuenean, bere buruari honako izen hau ezarri ziola: “Bidaiaari sentimentala”. Balio lezake izendapenak Jean Etxeparearentzat, Morand izan gabe, izan gabe Sterne –honek bai, honek hitz egin zuen gizon-emakumez, batez ere emakumez–. Baina bidaiaari sentimentala. Jakinik, gainera, Etxeparegan beti badela zer ikasia. ■